

PRENTSA OHARRA

Osasun neurri zorrotzekin egingo da merkatua bihar

Soilik oinarrizko elikagaien postuak egongo dira, Plazabarripean, 09:00etatik 14:00etara

Bihar, osteguna (martxoak 19), merkatua egingo da Plazabarripean, 09:00etatik 14:00etara. Koronabirusak eragindako alarma egoera dela eta, protokolo berezia ezarri behar izan du Udalak; besteak beste, eskaintza mugatu beharra ikusi da, eta soilik oinarrizkoak diren elikagaien postuak izango dira. Era honetan, merkatua mantenduta, herritarren erosketa eskubidea bermatzeaz gain, salmenta zuzen bidez aritzen diren baserritarrek eta bertako ekoizleek euren produktuak merkaturatzeko duten eskubidea bermatu nahi du Udalak.

Ezohiko egoerak eskatzen duen moduan, **osasun neurri bereziak** hartuko dira. Hasteko, merkatuaren esparrua mugatu egingo da. Erosleen sarrera-irteerak Karmengo kaletik egingo dira; Udaltzaingoa egongo da bertan une oro aforoa kontrolatzen, jende pilaketarik egon ez dadin eta segurtasun tartea bermatu daitezela. Horrez gain, Udalak osasun neurriak betetzeko beharrezko materiala bermatuko du, eskularruak, esaterako, besteak beste. Merkatuak irauten duen bitartean, kioskoaren beheko parteko komun publikoak irekita egongo dira.

Udala azokako saltzaile guztiekin harremanetan jarri da egunotan, guztiei banan-banan egoeraren berri emateko. Bihar azokan egongo diren saltzaileei beharrezko neurriak hartzeko eskatu zaie. Ondorengoak izango dira **saltzaileek hartu beharreko neurriak**: saltzaile bakarra egotea postu bakoitzeko; 65 urtetik gorakoak edo arrisku-talderen batekoak diren saltzaileak ez etortzea; eskularruak erabiltzea; 1,5 metroko segurtasun tartea mantentzea baserritarren artean; 1,5 metroko segurtasun tartea mantentzea baserritar eta erosleen artean; erosketa bakoitzetik bestera, eskuak desinfektatzea; eta, azkenik, postu bakoitzak bi mahai izatea: atzean produktua baserritarren eskura soilik, eta aurrekoa hutsik egotea, eroslearentzat produktuak bildu eta emateko.

Bere aldetik, merkatura erosketak egitera datozen **erosleek ondorengo neurriak** hartu beharko dituzte: erosketak bakarka egin beharko dira, eta inola ere ez ume edo pertsona nagusiek lagunduta; arrisku-talderen batekoak direnak ezingo dira etorri (bihotzeko gaitzak dituztenak, organoren bat transplantatua dutenak, arnasketa gaitzak dituztenak...); 1,5 metroko segurtasun tartea mantendu beharko dira bai baserritar eta baita erosleekin; produktuak ezingo dira ukitu; postu bakoitzaren aurrean bezero bakarra egon ahal izango da, eta zain dagoen hurrengo pertsona 1,5 metro atzerago egon beharko da.

Hauek dira biharko merkatuan egongo diren postuak:

Bingen: ortuariak eta sasoiko produktuak (Markina-Xemein)

Alejandro Arrieta 'Xemeingain': Ortuaria, fruta, sasoiko produktuak (Markina-Xemein)

Ana Isabel Arriaga: ortuari eta landareak (Berriz)

Mari Carmen Sangroniz: ortuaria eta sasoiko produktuak (Ziortza-Bolibar)

Nerea Foruria: arrautzak (Ziortza-Bolibar)

Iñaki Lopetegi: bakilaua

Maria Victoria Rodriguez: frutak eta barazkiak

Fernando Dosantos: frutak eta barazkiak

Florencio Azpiazu: kontserbak

Lourdes Malaxetxebarria: pastelak, ogiak



Merkaturako sarrera-irteera puntua

(Argazkia: Markina-Xemeingo Udala)

Markina-Xemeinen, 2020ko martxoaren 18an